

BALIO PROPOSAMENA

Gure produktuaren balio proposamena da erosotasuna sortzea. Gure produktua balio du pelikulak mugikorrean ikusteko, mugikorra eskuekin eutsi gabe. Hau da, gure produktua makil antzeko bat da non mugikorra ipintzen duzu bertan eta orduan ez duzu eskuekin eutsi behar mugikorra filma edo zer delakoa hari zaren ikusten.

Produktu honekin lortu nahi duguna, lehen esan dudana bezala, erosotasuna lortzea ikusten hari zaren filma disfrutatzen. Horrez gain, eskuak ez zaizkizu nekatuko. Hau da, normalen mugikorretik zerbait ikusten ari garenean eskuekin eusten dugu, baina, denbora pasa ahala, eskuak nekatzen joaten zaizkigu. Baina, *palofilm*-ekin lortzen duguna da eskuak deskantsu bat hartzea, mugikorra metalezko makilak eutsiko duelako. Beraz, eskuak libre edukiko dituzu beste zerbait egiteko.

Beste balio proposamena da proiektu honen esker nahi duzun lekuan ikusi ahal duzu zerbait mugikorrean. Adibidez; trenean, etxeko ohean, sofan, autobusean, hegazkinean...

Gainera makilak aurikular batzuk izango ditu konektatuta, horrela filma entzun ahal duzu nahi duzun tokian, jendea ez duzulako molestatuko soinuarekin. Aldiz, denek filma ikusi nahi baduzue aurikularrak deskonektatu ahal dira. Horrez gain, ez da izango arazoa etxean ahazten bazaizkizu musika entzuteko kaskoak, palofilm-ek aurikularrak konektatuta daudelako.

Azkenik gure produktua ez du batere kaltetzen gure osasuna, ez ditu gure begiak kaltetzen. Makilaren luzera kontuan hartu dugu mugikorraren pantaila begietatik gertu ez egoteko. Hau da, begiak ez kaltetzeko luzera minimoa oinarritzat hartu dugu.